



**2017KO AZAROAREN 3KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hiruan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2017ko urriaren 20an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2017ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 104 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, LAUROGEITA LAU MILA EHUN ETA HOGEITA HAMAR EURO ETA BERROGEITA SEI (84.130,46 €)takoa onartzea erabakitzen da.

**III.- GIPUZKOAKO EROSKETEN ZENTRALAREN BIDEZKO KONTRATAZIOA.-**

Diputatuen Kontseiluaren 2011ko ekainaren 21ean jasotako eskuordetzaz baliatuz, Foru Administrazioiko eta Funtzio Publikoko foru diputatuak 2017ko abuztuaren 29ko foru aginduaren bitartez, ORONA S. COOP. (IFZ.: F20025318) enpresarekin Foru Kontratazioen Zentralaren bidez jasogailuen mantentze zerbitzua emateko esparru akordioa (X-17008) burutzea erabaki zen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta zerbitzua interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikularekin arabera, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzuburuak, 2017ko urriaren 31n emandako txostenaren arabera proposatu du jasogailuen mantentze zerbitzuaren kontratua, esparru akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea.

Administrazio honek kontratatzea beharko duen zerbitzuaren zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko sei mila zazpiehun eta hirurogeita hemezortzi euro eta zortzi zentimo (6.778,08 €)ko gastua ateratzen da, BEZik gabe. Gastuak segidako traktu izaera iraunkorra du, konpromiso kreditu gaiari dagokion finantza eta aurrekontu xedapenen ondorioetarako.



Hori dela eta, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 198. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua ORONA S. COOP. enpresari esleitzea, izenpe-tutako esparru akordioaren ondorioetan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak onartzen ditu:

LEHENENGO.- "Foru Kontratazio Zentralaren bitartez jasogailuen mantenimentu zerbitzua-ren esparru akordiotik" eratorritako kontratua (X17008) ORONA S. COOP. enpresari (IFZ.: F20025318) esleitzea, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

BIGARREN.- ORONA S. COOP, N.I.F.: F20025318, enpresaren alde baimentzea eta xeda-tzea aurtengo ekitaldiari dagokion gastua, udal aurrekontuan, funtzional ezberdinetan, ja-sogailuen mantenimentu zerbitzuaren gastua jasotzen duten kontusailen kargura.

HIRUGARREN.- Enpresa esleipendunarekin kontratua formalizatzea.

#### IV.- SAN PRUDENTZIO 15-23 GUNEKO BERRURBANIZAZIO LANEN LEHEN OBRA EGIAZ-TAGIRIA .-

San Prudentzio 15-23 guneko berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Idoia Goenaga eta Garikoitz Alkorta arkitektoek eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen lehen obra egiaztagiria egin du. Lehen obra egiaztagiriaren zenbatekoa HOGEITA HAMALAU MILA ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA HEMERETZI ZENTI-MO (34.033,59 €), BEZ barne, da. Lan hauek Construcciones Artzamendi S.A. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, aho batez, onar-tzea erabakitzen du.

#### V.- MIKELAR 1-5 GUNEKO BERRURBANIZAZIO LANEN 2. OBRA EGIAZTAGIRIA- LIKIDA-ZIOA .-

Mikelar kaleko birurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen bigarren obra egiaztagiria - liki-dazioa dena, egin du. Bigarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa BERROGEITA HAMAIIKA MILA ETA BERROGEITA HAMAHIRU EURO ETA ZAZPI ZENTIMO (51.053,07 €), BEZ bar-ne, da. Lan hauek Sasoi Eraikuntzak S.L. enpresa ari da burutzen.

Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hau aztertu ondoren, aho batez, onar-tzea erabakitzen du.

#### VI.- KIROLETAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kiroletako batzordetik aurkeztutako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Ba-tzarrak honako akordio hauek hartzen ditu:



LAZKAOKO  
UDALA

Amalur Mendi Elkartea.- 2017ko urriaren 7an, kirol astearen barruan, antolatutako eskalada eta mendi jolasen ekintzari 300 €ko diru laguntza ematea.

Txindoki Atletismo taldea.- 2017ko urriaren 7an, kirol astearen barruan, antolatutako atletismo erakustaldiko ekintzari 2.851 €ko diru laguntza ematea.

Lazkaoko Antzar Korrikalariak.- 2017ko irailaren 30ean antolatutako Lazkaoko Duetloi Eskolar ekintzari 275 € ematea.

Lazkaoko GOROSKT skate taldea.- 2017ko urriaren 7an antolatutako skate txapelketarengatik 550 € ematea.

Jon Gonzalez Garcia.- 2017ko irailaren 30etik urriaren 6ra, kirol astearen barruan, egindako erakusketa eta hitzaldia eta bere kirol ibilbidean babes ekonomikoa emateko 500 € ematea.

#### VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak aditzera ematen du Gipuzkoako Foru Aldundiak diru laguntza eman duela bidegorria egiteko eta datorren asteartean, goizeko 11 eta erdiak aldera, Lazkaora etortzekoa dela, lanak ikustera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Diputatua.

#### VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

